



Hondarribia

158.zkia ■ 2004ko urtarrila



**Autobusak
ibilbide berria**

- 2. Botika eta okindegien txandak
- 3. Herri Giroa
- 10. Elkarriketa
- 15. Koldo Ortega
- 19. Psilocyberen urtemuga
- 24. Gazte Informazio Bulegoa
- 26. Bidaiak
- 27. Ganbarako kutxa miatzen
- 28. Lehiaketa
- 29. Horoskopoa
- 30. Demografia



Argitaratzailea:

Euskara Batzordea

Erredakzioa:

ZIF & Comunicación

Posta elektronikoa:

zifcomunicación@terra.es

Publizitatea:

ZIF & Comunicación

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Juan Carlos Ayerbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala / Artxiboa

IS

Floren Portu

ZIF & Comunicación

Maketazioa:

IS

Inprimategia:

Antza

Zirkuitu ibilbidea 2

20160 Lasarte-Oria

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO OKINDEGIAK OTSAILAN

1- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
8- GARMENDIA Portuan	943 641136
15- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
22- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
29- GARMENDIA Portuan	943 641136

TXANDAKO BOTIKAK OTSAILAN

1- IRAOLA San Pedro 5	943 641027
8- SAGRARIO FIZ Sokoa	943 644316
15- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
22- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
29- ERAUSKIN San Pedro, 22	943641018

179 HAUR JAIO ZIREN HONDARRIBIAN, AZKEN 25 URTEOTAKO ZIFRA ALTUENA

Beste urte betez Hondarribiko demografiak gorantzako bidean dagoela erakusten du. Jende gehiago jaio-tzen da hiltzen dena baino, eta hori beti da pozgarria, haurrak baitira etorkizunaren jabeak.

Hala ere, Hondarribiaren biztanleak gora egin izana ez da soilik jaiotze tasa igo dela, kontuan hartu behar dira baita beste herrietatik etorri eta hemen erroldatu diren pertsonak ere. Guzti hau ikusita, erreza da ondorioztatzea nola egun 15.000 inguru diren Hondarribian bizi diren gizon eta emakumeak.

2003an 179 izan dira jaio diren haurrak. Azken 20

urte hauetako media 120koa dela ez da ahaztu behar. Gure artetik joan direnak aldiz 112 izan dira. Hemen ere gorakada bat ikus dezakegu, iaz 95 izan baitziren.

1979tik jaiotze tasa altuena

Amaitu berria dugun urtea jaiotza aldetik oparoena izan da. Esan bezala 179 izan dira 2003an jaiotakoak, eta 1979an 154 izan ziren. Datu bezala, interesgarria da jakitea urte hartan bakarrik 50 pertsona hil zirela. Azken mende laurdenean, Hondarribian izan dugun urterik oparoena izan zen 1979a.

AZKEN 25 URTE HAUETAKO DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

Urtea	Jaiotzak	Heriotzak	Urtea	Jaiotzak	Heriotzak	Urtea	Jaiotzak	Heriotzak
1979.....	154.....	50.....	1988.....	125.....	49.....	1997.....	123.....	106.....
1980.....	125.....	57.....	1989.....	82.....	60.....	1998.....	129.....	91.....
1981.....	113.....	52.....	1990.....	93.....	73.....	1999.....	123.....	110.....
1982.....	121.....	45.....	1991.....	111.....	89.....	2000.....	141.....	94.....
1983.....	128.....	40.....	1992.....	128.....	78.....	2001.....	135.....	119.....
1984.....	141.....	55.....	1993.....	118.....	73.....	2002.....	144.....	95.....
1985.....	112.....	39.....	1994.....	113.....	87.....	2003.....	179.....	112.....
1986.....	99.....	42.....	1995.....	118.....	95.....			
1987.....	114.....	38.....	1996.....	144.....	96.....			

Hemendik aurrera **HONDARRIBIA** aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:.....
 Helbidea:.....
 Herria:

EUSKAL TXISTE GRAFIKOEN LEHIAKETAREN GARAILEAK

■ Neguko Jardunaldien barruan antolatutako ekitaldi bat da

Urtaro Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen duen Euskal Txiste Grafiko Lehiaketaren garaileak ezagutzen dira. Urtarrilaren lehen egunean egin zen sari banaketa Udaletxeko Areto Nagusian.

A mailan lehen saria irabazi duena Maider Kalonje Peruarena izan da, "Bush eta lagunak Iraken" izeneko lanarekin. Bigarren saria eman gabe utzi da.

B mailan aldiz, sei gazte izan dira sarituak: Aitor Gimenez Camino eta "Sutagar" lana, Telmo Basterretxea Seijo eta "Jotake", Beñat Lapitz Danbolinea eta "Politik-ek", Unai Manterola Yagüe eta "Odol berria", Ion Tife Perez eta "Sif" eta Eneko Aspillaga Cuevas "Itsaso beltzean".

Azkenik, D mailan Aitor Baztarrika Oca eta "Prot" lana, Mikel Urkia Ruiz eta "Juanito", Jon Balerdi Goikoetxea eta "Ziztu bizian", Bikendi Alza Piriz eta "Astakeria" eta Iker Montoya Iridoi eta "Nagi eta alferren lehiaketa" lanak izan dira epaimahaiaren saria merezi izan dutenak.

Aurtengo edizioan epaimahaia Antton



Aurtengo sarituak epaimahaiko zenbait kiderekin.

Olariaga, Iñaki Arzak, Aierr Alonso eta Kattalin Nobliak osatu zuten, eta idazkari lanak Koro Erasok bere zituen.

Udaletxeko Areto Nagusian egin zen sari banaketa, eta bertan egon zen urtero bezala Asisko Urmeneta eta irabazleekin jai giro ederra sortu zuen.

Xera

Perfumería • Estheticienne

San Pedro, 15
20280 Hondarribia
Tel. 943 64 27 98

LENCERIA

XERA

San Pedro, 5
Tel. 943 64 58 84
HONDARRIBIA

JUAN SAN MARTIN ETA GURUTZEAREN ALABEI OMENALDIA UDALETXEAN



Duela zenbait urte hasi zen Hondarribiko Udala herriaren alde lan oparoa egin dutenen aldeko ezagupen moduko bat ospatzen, urrezko insigniak urtero bi pertsona edo erakunderi emanaz.

2003an Juan San Martin eta Gurutzearen Alaben Kongregazioa izan ziren hautatuak. Guztiok soberan ezagutzen ditugu aurtengo ezagupenak jasoko dituztenak. Alde batetik, Juan San Martin euskaltzale, historialari eta idazlea, 1922an Eibarren jaioa, eta hainbat alorretan murgildua etengabe lanean bizitza osoan. Duela gutxi merezitako omenaldia jaso zuen Koldo Mitxelena Kulturunean bost ekitalditan, eta orain, 1982az geroztik bere herrikideak direnak izango dira omenaldi hau eskainiko diotenak.

Beste alde batetik, Gurutzearen Alaben Kongregazioa daukagu. Iaz 100 urte bete ziren Hondarribira etorri zirenetik. Hain zuzen ere, 1903. urteko ekainaren 9an iritsi ziren Gurutzearen Alabak gure artera, eta San Jose Ikas-



tetxearen ardura daramate, ehundaka haur daudelarik bere erantzunkizunaren menpean.

Egun, 100 urte betetzen dituen gure ikastetxea honelaxe osatzen da: Haurtzaindegiko sei gela, Haur Hezkuntzako beste hiru, Lehen Hezkuntzako sei eta azkenik DBHko lau gela.

BINTZOKI

TABERNA - JATETXEA

*Beti euskararen
alde*

Mouriskot etxea
Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA



¿Necesitas fotos tipo carnet?

D.N.I., CONducir, CAZA, COlegio, ETC.
O SIMPLEMENTE PARA REGALAR A TUS AMIGOS

20 FOTOS CARNET

foto
FRANAN

POR SOLO **3,58 euros**

Zuloaga,4
Frente al ambulatorio
HONDARRIBIA

595 PTS.

IRUN-HONDARRIBIA AUTOBUSA ERDIGUNETIK KANPORA IRISTEN DA ORAIN


Otsailaren lehen egunetik hasita, Irun eta Hondarribia lotzen duen autobusak ibilbide berri bat hasi du. Orain artean, autobusak hiri barneko ibilbidea betetzen zuen. Duela urte batzuk Ramon Iribarren ibilbidean sartzea erabaki zen, eta orain hiria goiko kaleak igarotzea erabaki da.

Erabaki honen ondorioz, Jaizkibel eta Baserritar etorbideak pasatzen ditu autobusak, bertan bizi diren hondarribiarrei zerbitzua emateko. Orain, 12 minutu autobus bat izango du Irunera joan nahi eta handik etorri nahi duenak.

Geldialdi berriak egin behar izan dira ondoko tokietan: Kostan (Goardia Zibilen koartel ohiaren maldan hasten den tokian), Llobregat-eko igogaren hasieran, Biterin, Zeren Plazan, Sainduan, Jaizkibel Hotelaren inguruan, eta Olabiden. Kopa eta Sainduan izan ezin, gainontzeko geldialdiak aurretik aurre daukate itzulera bidaia seinala.

Arloko zinegotzia den Luis Miguel Iturrartek prentsaurrekoan aurkeztu zuen duela denbora bat hiritar askok eskatzen zuena. Horretarako, berak esan bezala, "Udala, Auif autobus enpresa eta Gipuzkoako Foru Aldundia ados jarri behar izan dugu".

2003. urtean zehar Hondarribia-Irun bidea betetzen duen autobusen erabilzaile kopuruak behera egin zuen, eta erabaki honek hori konpontzea bilatzen du beste zenbait gauzen artean.



Otsailaren hasieratik autobusa Jaizkibel eta Baserritar etorbideetatik pasatzen da.

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA

Aerobic, Muskulazioa, Masajeak
Piraguen alokairua eta gordelekua,
Mantenimendu gimnasia
Gimnasia terapeutikoa
Sauna dohainik

HERRIKO GIMNASIORIK EDERRENA!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ITSASERTZAREN GARBIKETA ETA MURALEN MARGOKETA AMAITU DA

- Prebentzio Komunitarioak zuzenduta, 12 gizon eta emakume lau hilabetez aritu dira lanean

Hondarribiko Udaleko Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuak bizpahiru proiektu nagusi garatu ditu azken hilabete hauetan, Enplegu Sustapen Programaren barnean. Hain zuzen, "Artebide II" eta "Itsasertzeko Garbiketa V" dira programa hauek.

Azken honi dagokionez, bostgarren urtea da martxan jarritzen dela. Brigada batek gure itsasertza garbitzean datza, espigoia, ubideak, kalak, Jaizkibelgo belardiak garbitu, baita errekek egokitu eta ur pasabideak baldintza onenentan mantentzea ere.

"Itsasertzeko Garbiketa V" programan sei langile eta gizarte hezitzaile batek hartu dute parte, irailaren 15ean hasi zen eta urtarrilaren 14ean amaitu zen, Hondartza Kiroldegia kanpalkaldean egindako erakusketan azaldu bezala. Bere helburu nagusiak, alde batetik Jaizkibelgo belardi eta



Hondarribiko sei emakumek egindako lana Kiroldegian izan dugu ikusgai

itsasertza garbitzea izan da, eta bestetik 6 gizonek parte hartzaileen lan mundurako sarrera baldintzak hobetzea.

Hondarribiko mural sorta bat prestatu da

Kiroldegia kanpalkaldean ikusgai izan dugun moduan, "Artebide II" programaren bidez, Hondarribiko hiriari buruzko mural sorta bat prestatu dute sei emakumek, teknika desberdinak erabiltzen direlarik. Kontutan izan behar da emakume hauek ez zutela inolako loturarik eta jakinduriarik artearen gainean.

Lau hilabeteko iraupena duen proiektua izan da, urtarrilaren 14ean amaitu zelarik. Hogeitamar urtetik gorako sei emakume eta Arte Ederretako begirale batek hartu zuten parte ekimen honetan, eta Puntalean dagoen Udal Ludotekan egin da.



Zuloaga etxeko erakusketa

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

C/ Pedro Mourlane Mitxelena, 28
(Sokoa) - 20280 HONDARRIBIA

**BALNEARIO URBANO
PELUQUERIA
ESTETICA
SOLARIUM**

Tel.: 943 640 761 - CITA PREVIA-
E-mail: SpaSokoa@hotmail.com

ZABORRAK BILTZEKO TARIFA BERRIAK EZARRI DIRA

■ 2004. urterako %16ko igoera aplikatu da

Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak 2004 urte berri hau tarifa berriein estreinatu du. Iazko arekin parekatzen badugu, kopurua %16an igo dela ondorioztatuko dugu. Badirudi igoera honen arrazoi nagusia Errenderiko San Markos-eko zabortegean egiten dugun zabor botatzea da. Iaz San Markosen zaborra botatzeak tonelada bakoitzeko 30 euroko kostua zuen, eta aurtan 41 eurotara igo da. Honek %37ko igoera suposatzen du.

Etxez etxe bidaltzen den ordainagiriari dagokionez, iaz zaborragatik 62,21euro ordaintzen bagenituen, aurtan 72,14 izango da. Hiru hilabetero ordaintzen denez, ordainagiri bakoitza 18,03koa izango da.

Merkatal denda, lantegi edo biltegietan igoera handiagoa izango da. Gauza bera gertatuko zaie elkartei, orain bakoitzak 232,21 euro ordaindu beharko ditu eta.

Hirtarrok zaborra jasotzeagatik ordaintzen dugun diru kopuruak nabarmen egingo du aurtan. Iazkoarekin %16ko igoera izan dugu. Txingudiko Zerbitzuetatik, igoera hau San Markos-eko zabortegean zaborrak uzteagatik ordaintzen den tarifaren igoeraren ondorio izan dela esaten da, bertan %37an gora egin baitu prezioak.



Foto Sistema



ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3

Tel. 943 64 57 65

20280 HONDARRIBIA



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA

SPORT MUNDI ELKARTEAK 30.000 EURO BILDU ZITUEN D.O.A.-RENTZAT

- Guatemalan lan egiten duen elkarteak da DOA

Sport Mundi Elkartek 2003. urtean bildu zuen dirua DOA Gobernutik Kanpoko Erakundeari eman zion urte amaieran egindako ekitaldi batean. Bildutako diru kopuruaren zati handiena uztailaren amaieran ospatu zen Sport Mundi Egunean bildu ziren.

Hiru urtetan lana egin ondoren, 2003an zabalpen eta oihartzun handia lortu zuen Sport Mundi Elkartek. Kiro-lari ezagunak biltzen saiatu zen, beraien bidez baliabide ekonomikoak lortu eta DOA erakundeari laguntza eskaintzeko.

2003an egun handiena uztailaren 31an eman zen, eta Txema Olazabal, Vilariño familia, Juanma Garate eta Patxi Vila, Bidasoa Eskubaloiei Elkartea, Reala eta Osasuna... hainbat izan ziren ekimen honetan lagundu zutenak. Guzti hauei eta Elkartek egin duen lanari esker, DOA Elkarteari 30.000 eurotako dirulaguntza ematea lortu da, zeinak Guatemalan burutzen dituen bere lanak.

2004 urte honetarako egindako lanari jarraipena emateko prest agertzen dira Sport Mundiko kideak.

Inoiz piragua batean eseri den jende kopuruaren marka puskatu zen Sport Mundi egunean.



gizonezkoentzako
ileapaindegia

TIRLIA

Beñat Etxepare 18
Tel. 943 64 58 30
20280 Hondarribia



ENARA, C.B.

EXPERTOS INMOBILIARIOS



VITALICIO
ASEGURAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 4 behea
20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38

HONDARRIBIA MADRIL-GO FITUR AZOKAN AZALDU DA

- Bidasoa-Txingudi bailara berriz elkarrekin aurkeztu da turismoko azoka garrantzitsu honetan



Urtarrilaren amaieran eta otsailaren hasieran urtero Madrilén FITUR turismoaren azoka antolatzen da. 24 urte igaro dira lehenik antolatu zen lehen aldi hartatik, eta orain mundu mailako turismoko azoka nagusienetako batean bilakatu da. Hondarribia, Irún eta Hendaia batera aurkeztu dira bertan. Bidasoa-Turismoko ordezkariak bertan egon dira, eta Xabier Gezala Hondarribiko Udaleko Turismo Zinegotziarekin egon gara zerbait gehiago jakin asmoz.

Bidasoa-Txingudi, eta bere barnean Hondarribia, bertan egon dira dauzkagun turismorako aukerako aukerak erakusten. "Bidasoa-Bizirik" elkargotik FITUR azokan aurkezteko, eta gero edozein hiritarri zuzenduta, turismo arloan egin diran ekimen berriak aurkeztu dira.


Esperientzia berri honi buruz zerbait gehiago jakiteko, Xabier Gezala Kultura, Kirol eta Turismo Zinegotziarekin egon ginen. Han ikusitako handitasunarekin txundituta geratu zen.

Zer moduko esperientzia izan da FITUR-ekoa?

Izugarria da FITUR-en dagoen muntaia. Juan Carlos I. izeneko parkean kokatzen da, eta han pabilioi pila bat prestatzen dira, bai erakunde ofizial, bidai agentzia, ostalaritza, zerbitzuetako enpresa, turoperadore deitzen zaienak... Han egon behar da dagoen handitasuna ikusteko.

Turismo arloan dagoen azoken artean, hau al da nagusia?

Dudarik gabe. Mundu mailan dagoen turismoko azoka handiena da. Kontutan hartu behar da, mundu mailako 170 herrialde biltzen direla bere turismo aukerak erakusteko. Herrialde honen barnean ere komunitate desberdinak ager daitezke, Espainiaren kasuan gertatzen den bezala. Iazko datuak begiratzen baditugu, 10.015 enpresa erakusle bildu ziren FITUR-en, ia 140.000 metro



FITUR azokaren garrantzia azpimarratzen ditu Xabier Gezala, Kultura, Kirol eta Turismo Zinegotzia denak.

Susperezgi
ARTE - GALERIA

San Pedro, 1 - 20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 70 99 / 943 64 25 56

Faxa 943 64 7116



**BAR
ONDARRIBI**

AUKERA HANDIA BANDERILLA ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31

Tel.: 943 64 27 05

20280 HONDARRIBIA

Hondarribia, Irun eta Hendaiak turismoko eskaintza bateratua egin dute Madrilén



Gezalaz gain, Bidasoa Bizirik-eko buru diren Miguel Angel Paez eta Guillermo Echenique eta Bidasoa Turismo-ko zuzendari den Cristina Gutierrez izan dira Madrilén Euskadiko stand-ean eta Gipuzkoako Kostaren eskaintzaren barnean gure bailara erakusten.

Xabier Gezalaren ustetan, "garrantzitsuena FITUR-era eraman den eskaintza da. Bailarak daukana eraman dugu, baina ahalik eta itxura onena eskainiz. Horretarako erabili dira web gunea, Hondarribiko Ostalarien Elkarrekin gastronomiari buruz egin duen DVD eta liburu berria eta beste gauza asko".

**GESTORÍA
INMOBILIARIA**

Pérez Alkain

Matxin de Arzu 14
20280 HONDARRIBIA

Tel. y Fax 943 64 21 57
e-mail: gespeal@euskalnet.net
Móvil: 656 75 89 83

Restaurante




Gran Sol

- Sukaldaritza tradizionala
- Eguneko menua
- Karta

C/ San Pedro, 63
Tel.: 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA

UDALAK 1719KO ASEDIOAREN GARAICO PLANO BAT EROSI DU

■ Madrilgo enkante batean 4.000 euro kostatu zuen.



Hondarribia leku estrategiko garrantzitsua izan da historiako aro guztietan. Bere kokalekuak behin baina gehiagotan erasotua ekarri izan dio. Izaera horrek askotan setiatua bizi beharra ekarri zion, batik bat Espainia eta Frantziaren arteko gudetan. 1.200. urtean, Gipuzkoa Gaztelarekin elkartu zenean, gotorlekua zen. Hortik aurrera, bere harresiak setio ugariren lekuko izan dira. Eraso egoera ezagunena 1.638an izan zuen, eta bere defentsa saiaturik, 69 eguneko setioari eutsi baitzion, Hiri Txiki Leial eta Txiki Adoretsua titulua eman zioten Espainiako erregeek.

Xabier Gezala Kultura, Kirol eta Turismoko Zinegotziak prentsaurrekan esan bezala, "1719an, Utrechtetik ituna sinatu eta sei urtera, Frantziak Berwickeko dukea bidali zuen Espainiara, eta, Euskal Herrira iritsi zenean, Irun, Hondarribia eta Hernani mendeant hartu zituen". Garai horretako testigantza zuzena lortu du Hondarribiko Udalak. Izan ere, garai histori-

ko hartako guda islatzen duen plano bat erosi du, Madrilgo enkante batean, hain zuzen ere. Planoa 1719ko Hondarribiko setioaren garaikoa da eta egilea Francisco Mauleon brigadierra da orduko Espainiar Armadako komandantea. "1719an Hondarribia frantsesen mendeant zegoen. Plano honen arabera, badirudi Felipe V.a erregearen armadak frantsesak erasotzeko asmoa zuela. Izan ere, Hondarribia, estrategikoki eta militarki, nola okupatu behar den adierazten du planoak", azaldu zuen Xabier Gezalak. Planoa eskuz margotua dago, eta aldamenean Hondarribiko herriaren eta frantsesen okupazioaren erreferentzien zerrenda du erantsita. "Jeneral frantsesen bizilekuak zehazten dira; itsasgoiak eta itsasbeherak ere noraino iristen ziren zehaztuta agertzen dira, eta abar," gehitu zuen zinegotziak. Gezalak azaldu zuenez, badirudi Espainiako armadak azkenean ez ziela frantsesek egin, 1721ean bakezko ituna sinatu baitzuten.

MANUEL MANZANO-MONIS: HONDARRIBIKO ARKITEKTURAREN PERTSONAIA GARRANTZITSUA

- Espainian zehar hainbat eraikin eta gune historiko birgaitu zituen bere bizitzan zehar


Manuel Manzano-Monis Mancebo izen ezaguna da Hondarribian. Arkitekto eta urbanista, asko dira bere estilo eta sinadura daramaten Hondarribiko etxe eta eraikinak. Datozen lerroetan, gure aldizkariko irakurle zaren horri, gizon honen bizitza eta lanari buruzko laburpen bat eskaintzen dizuegu.

Gizon honi buruz asko idatzi da, eta nahiko bide desberdinak hartu dituzte kritikek. Hala ere, arkitekto honen eskua nabarmen ageri da Hondarribian, denon onerako duarik gabe, eta nor izan eta zer egin zuen azaleratzea egoki dugu. Lantxo honetan esango ditugunak honako iturri hauetatik hartuak dira: Udal Artxibategia, Ana Azpiriren "Arkitektura eta Hirigintza Hondarribian 1890-1965" liburua, eta "Hendaye, Irún eta Fontarabie, villes de la frontière" (Institut Français d'Architecture, Norma Editions) liburu ederra.

Manuel Manzano-Monis 1913ko maiatzaren 13an jaio



Manuel Manzano-Monis, Udaleko arkitekto zuzendari izandakoa.



Tankera honetako etxebizitzak egitea zen Manzano-Monisen gustua.

11. orrialdean hasten dira erreferentziak. "Sagarzazuk (Francisco) Udala utzi zuenean, Manzano-Monis bihurtu zen arkitekturako eta hirigintzako aholkulari ofiziala. (...) 1963an, Alde Zaharra "Monumentu Historiko Artistikoa" izendatu zenean, Manzano-Monis Arte Ederren Zuzendaritza Orokorreko delegatu izendatua izan zen. (...) Gipuzkoako Plaza hiriko ikurretako bat da, eta hark hark diseinatu zuen, fatxaden aurrealdeak aldi berean eginaz. Gaur egun hiriaren gune interesgarrienetako bat da, eta zaila da hura atsegin ez duen norbait aurkitzea. Kanpotarrentzat, XVI. eta XVII. Mendeko Hondarribia ageriago geratzen da han Panpinot kalean bertan baino. 1965. urtetik aurrera eraiki zen. Manzano-Monisek zorroztasunez zuzendu

zuen hirigunearen berreraikuntza, xehetasun guztiei buruzko erabakiak hartzen zituen eta ez zuzen utzi inork parte har zezan arkitekturaren sorrera prozesuan".

176. orrialdean datu gehiago gehitzen dizkigu Ana Azpirik. "Izan ere, hamar urtez baino gehiago Manzano-Monisek kontrolatu zuen Alde Zaharrean eraiki zen guztia, eta jabe eta sustatzaileak behartu zituen proiektuak ere haren esku uztera, eraikuntza baimena lortu ahal izateko. (...) muturreraino eraman zuen kontrola, alegia, proiektu guztiek bere lan mahaitik pasa behar zuten".

"Alde Zaharra beste hiri historiko batzuetatik hartutako elementuen sintesia zen. Hala, Gipuzkoako, Gaztelako, Galiziako edo Kantabriako elementuak nahasten dira, ikuslearen harri durarako. Gipuzkoa plazam ia hutsik zegoen orube batean berak erabat diseinatu zuen, hirian turismo gehien erakartzen dutenen eritzien arabera epaitzen badugu proiektua, Manzano-Monisek erabat asmatu zuen. Eraiki zuen plaza egungo egungo hiriko bazterrik xarmangarriena da".

Aurrerago gehituko duenez, "Alde Zaharreko zati handi bat berak asmatua da. Hondarribia ezagutzen dutenek baloratu beharko dute haren joera estetikoa zuzena ala okerra den".

KOLDO ORTEGA



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047

**ARROKA
BERRI**




RESTAURANTE

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokabermi.com

PSILOCYBE ELKARTEAK BERE HISTORIARI BURUZKO BI CD ETA DVD BAT KALERATU DITU

10 urte igaro dira Hondarribian Psilocybe elkartearen sortu zenetik. Aldizkari honen orrialde hauetan horren berri eman dugu, batez ere 2003ko abuztuaren antolatutako asteburu.

Bere osotasunean Hondarribian sortua eta bertako musikarien interesa aurrera eramatea bilatuaz, 1993. urtean sortu zen Psilocybe elkartearen udalak Mendelun utzitako lokalak erabiltzen dituzte, orduz geroztik gustu onez birgaitu eta dekoratu dituztelarik, gehien gustatzen zaiena burutu ahal izateko, musika jotzea. Ordutik, 30 talde inguru izan dira Mendelu auzoan daukaten



Elkarteak argitaratu berri duen diskaren azala.



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burundegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



En el Casco
Histórico

Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

psilocybe

10 urte 10 años

**Psikomurritzak Orbital Eyes Killing Moon
Delhi Considera Imago 4 Hazi Beltza Pinbol
Picled Onions Neuma 00" Dut Krokas' Band
The Illusions Ploff en Off Semtex Elements
The Coliflowers Blood Seekers Marginalia
Sorotan Bele Orgasmic Toothpicks DJ Mau
The Ajos Gomm Miss Dinamarka Kabul 0.T.C
Chronic Band Robotized Society 6 Erru Lir
Beti Mugan Guetto Sesamo Retrovisor**

...aurrera

Banan bana agertzen dira 10 urteetan zehar igaro diren taldeak. Ia denen lanak biltzen dira argitaratu berri den CD bikoitz eta DVDan. Musika denda, Alde Zaharreko taberna eta zenbait liburudendetan jarri da salgai 15 eurotako prezioekin.

lokaletik igaro diren talde eta musikariak, eta asko antolatu diren kontzertu eta aktibitate desberdinak.

Asteburu hartan Psilocybe-k, egin ziren kontzertu eta emanaldi guztiak grabatu zituzten, CD eta DVD formatoan gerora argitaratu ahal izateko.

Iritsi da orain kontzertu haietan burututako lanaren erantzuna jasotzeko unea.

Hiru egunez, Hondarribiko musikari direnek eta izandakoek kontzertu desberdinak eskaini zituzten Alde Zaharreko tabernetan eta Alamedan. 10 urte hauetan burututako lana

EROSLE

CHARTER SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA




kai zahar

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

truck
diskoteka
foru kalea, 13





1997

Geldutako lagunenez kriston jela antolatzen da Saizduan. Emodioz eta bertsiotz betetako kontzertua.(1)

Dut eta Fermin Muguruzak "ireki ateak" elkarlana kale-ratzen du.(2)

Udalebakek Saizdua isten du.

Hemiko jiletan txoznan "baleibor" ("potafaci") eta "Katinto" sariak eman dira: ligatzen duena, potatzen duena eta mozkor handiena arrapatzen duena, zegoen giro onaren adierazgarri.

Urteazaharrian kotilloi-a antolatzen da bertan.(3)

1998

Lif-ek (live in the attic) maketa pabaran botillabio batekin kaleratzen du.(1)

Gorim-ek (Sabo) maketa kaleratzen du.(2)

Autobus pila antolatzen dira bertako taldeei laguntzeko, materiala eramateko ere baliu izango dutenak, Inufeko kontzerturako adibidez bi autobus beteiko dira.(3)

Txoznen gunean barraken mesifikazioa zela eta jailetan bozriak ez jartzea erabakitzen da.(4). Kapuluon kontzertua antolatzen da,ta kriston jela montatu.

Dut-ek Fermin Muguruzarekin munduko bira egiten du.(5)

Hamar urte hauetan Hondarribian argitaratu dituzten musika lanei buruzko kronologia egiten da diskan.

goraipatzea zen helburu bat, eta horrekin batera, Hondarribian dagoen kultur eskaintza nolabait aberastea ere.

Bi CD eta DVD bat

Egun haietan eman ziren kontzertuak grabatu egin zirela esan dugu, baita beste zenbait pasadizo ere. Zenbait hilabetetan gogor lan egin ondoren, orain fruituak jaso egin dira.

Hamargarren urteurrenaren aurkezpena urtarri-laren 5ean egin zen Truck Diskotekan, eta 600 pertsona inguru bildu ziren. Beranduago izan bada ere, duela egun gutxi iritsi dira asteburu hartako lanak, 2 CD eta DVD batean. Lehen Cdan, hamar talde berri eta beste hamar klasiko biltzen dira. Bigarren Cdan Abuztuak 23ko Alamedako kontzertuan entzundakoak gordetzen dira. Azkenik, DVDan, Psilocybe Elkartearen sorrerari buruzko erreportai bat

eskaintzen da, baita irudi gehigarri asko ere.

Denetara 1000 kopia egin dira, ondoko tokietan jarri da salgai: Alde Zaharreko Kulunka, Hontza, Etxeberria eta Muara tabernetan, Banakon, Zuloaga kaleko Tirikitrauki dendan, eta Sokoa zein Puntaleko liburutundetan. 15 eurotako prezioa dauka, burutu den lana eta eskaintzen dena kontutan hartuta prezio oso ona delarik.

6 kontzertu Aste Santuan

Aste Santuaren inguruan sei kontzertu ematea aurreikusten dute Psilocybe Elkartekoek. Aste Santua aurretik hiru izango lirarteke eta beste hainbat ondoren. Talde handiak egongo dira bertan, eta Hondarribian dauden musika zaleentzat data interesgarri bat izango da apirilaren hasera. Beste batzuen artean, "Beti Mugan", "Zein?" (lehenengo Ama Say), "The Colyflowers" taldeak egongo direla ziurra da.

AIREPORTUAREN AUZIAK AURRERA JARRAITZEN DU.



Hondarribiko lurretan dagoen pista haunditzeak ondorio tamalgarriak ekarriko lituzke hiritar askorentzat.

Azken hilabete eta urte hauetan Hondarribiko Aireportuaren afera guztion ahotan egon da. Aireportuaren pista luzatzeak Hiriari ekarriko dizkion kalteak zeintzuk diren aski ezagunak dira, ia auzo oso bat desagertuko delako. Hori salatu asmoz, gogor agertu dira bertako agintari eta Mendelu auzoko koordinadorako kideak.

Azken asteotan badirudi aferak bide berri bat hartu duela, Espainiako Gobernutik aditzera eman denez, errespetatu egingo da Euskal Administrazio guztiek aho batez hartuko duten erabakia. Badirudi horrek gauzak erabat aldatzen dituela, orain artean Mendeluko bizilagunak, Hondarribia eta Irungo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza aireportua handitzearen aurka agertu baitira.

Azken urte hauetako Udal Aurrekontuak baldintzatuak geratu dira auzi hau dela eta. Alde batetik, Mendelu auzoan eta inguruan egiteko ziren proiektuak geldirik daude. Bestetik, Irungo Udalak San Migel-Anaka inguruan 1000 etxebizitza egiteko asmoa dauka, zeinetatik 700 babes ofizialekoak izango lirateken, eta kontu hau oztopo batean bilakatu da, ez atzera ez aurrera nola egin aurkitzen dira eta.

Baina zein da Aireportuaren handitze honen auzian dauden iritzi desberdinak? Bi ildo nagusi daude; alde batetik bizilagun, hiritar eta euskal erakunde publikoek defendatzen dutena, eta beste alde batetik, Espainiako Gobernuak Sustapenerako Ministeritzaren bidez Francisco Alvarez Cascos eta Benigno Blanco bere zuzen-

dariek defendatzen dutena. Datozen lerroetan bakoitzak ikusten dituen alderdi positibo eta negatiboak azalduko dizkizuegu:

Bizilagun, hiritarren eta euskal erakundeen iritzia

Duela denbora bat aireportuaren pistaren han ditzearen aurka dauden indarrak bideratzeko koordinadora bat sortu zen. Hau oinarritzat hartuta hiritarrak, eta gehienbat bizilagunak, askotan atera dira bere iritzia argi eta garbi erakustera. Famatua bilakatu den Plan Zuzentzailea bertan behera geratzea eskatzen dute, eta Espainiako Boletín Ofizialean agindu hori argitaratzea ere. Koordinadorako kideak ez dira Gobernuak esaten duenaz fidatzen, eta ezinbestekoa ikusten dute proiektua erretiratzeko eta gainera Boletínean horren berri agertzea.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak argi asko utzi du bere iritzia. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahalduen Nagusia Espainiako Gobernuaren asmoaren aurka agertu da behin baina gehiagotan. "Egitura moderno eta seguru baten alde gaude, baina ez dugu zergatik Espainiako Gobernuak inposatu nahi duen proiektua onartu behar, askoren interesen aurka doa eta".

Txabarri-ren ustez, "egitura moderno eta seguru bat lortzea da helburua, eta horretarako oso baliagarriak izan daitezkeen azpiegiturak aprobetxatu daitezkeela uste dugu, trenbide sare berria kasu". Hala ere, aireportua ez haunditzea eta egitura moderno bat mantentzearen nahiak

Mendeluko bizilagunak urduritu egin ditu.

Espainiako Gobernuaren iritzia

Espainiako Gobernuako Ministeritzak aireportua handitzeko bere erabakia argi utzi du. Hori hala egingo balitz, Ministeritzak desagertuko liratekeen etxebizitzak eta lantegiak diruz ordainduko lituzke, beti ere egungo merkatuaren prezioetara egokituaz.

Ministeritzako arduradunek diotenez, "aireportuko pista ez bada handitzen, denborarekin itxi egin beharko da, bere funtzio nagusienak galdu egingo ditu eta". Estatuaren Azpiegiturak Idazkaria den Benigno Blanco-k bilera mantendu izan ditu bizilagunekin, eta proiektua aurrera eramateko asmoa argi utzi du, esan bezala beti ere merkatuaren prezioak errespetatzen.

Gobernuak pista handitzea bidaiari kopuruaren gorakada kontutan hartu egin behar da. Gaur egun 300.000 dira erabiltzaileak, eta aldaketa hauekin kopurua bikoiztea espero du Gobernuak.

Zeintzuk lirateke ondorioak?

Lehenik eta behin, ondorio zuzenena Mendelu auzoak izango dituenak dira: 223 etxebizitza, 22 merkatal denda eta 19 pabilioi industrial desagertzea. Horretarako gaur egungo pista, 1754 metrotakoa, 196 metrotan luzatu egingo litzateke, 1950 metrotara heldu arte.



Aireportua ez bada haunditzen, 100 pertsona baina gehiagoko hegazkinek ezingo dute lur hartu.

EDARI BEGETALEK DUTEN ERAGIN POSITIBOA

Gaur esne mota berriei buruz hitz egingo dugu. Guztiok badakigu zein den amaren esnearen garrantzia, haur jaio berriaren ezinbesteko elikadura da eta. Behi esneak garrantzi handia du, baina gaurkoan "Lima" esnari buruz hitz egingo dugu.

Animalietatik datozen elikagai guztiek kolesterola daukate. Aldiz, begetal jatorria duten elikagaietan ez da hau gertatzen. Horregatik, Lima esne begetala kolesterolik gabeko dieta batean oso gomendagarria da.

Rice drink

Arroza daukan edari hau Europako janari begetalen artean ospetsuenetako batean bilakatzen ari da. Bere zapore freskagarria, banillarekin aromatizatua, bere garbitasuna eta gustu ona asko zabaldu da. Lima izan zen arrozetzko edaria Europan lehen aldiz sartu zuena.

Arrozetzko edarien barnean mota desberdinekoak daude. Rice Drink Original bezala ezagutzen dena natural eta gozoa da, eta belaunaldi guztien artean gero eta gehiago onartzen da. Rice Drink Choco aldiz haur eta nerabeek oso gustukoa dute. Rice Drink Hazelnut-Almond (hurra eta almendrazkoa) askorentzat glosina bezalakoa da.

Soya drink

Izen honekin ezagutzen da edari begetal freskagarri bat, bere osasuna eta elikadura zaintzen duten pertsonen zuzendutakoa. Proteina, karbonozko hidratoak, bitaminak eta mineraleak, lipido eta urez osatua. Betiko esnari jartzen zaion alternatiba da. Laktosa onartzen ez duten pertsonentzat oso gomendagarria da, baita behiaren esnari alergia diotenentzat.



FITOTERAPIA
HERBODIETETICA
ALIMENTACION

Exuntzumela
Ekodenda




Santiago kalea, 33 - 20280 HONDARRIBIA
☎ 943 641 450 - ✉ txuntxu@terra.es

Janari ekologikoa • Txekor haragia, oilaskoa, zerria • Olivalle-Olipe (Kordoba) olibako olio
Fitoterapia, Kosmetika, Bach loreak • Ardoak, cavak, garagardoak, zukuak


GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GAZTERIA ZERBITZUAREN WEB ORRIALDEA

- Bisita ezazu!!! Bertan aurki dezakezu zure intereseko gaiei buruzko informazioa



- Gaztemaniak, musika gida, oporraldiak, aterpetxeak, gazte informazio sarea, dokumentuak, elkartegintza, loturak,...
- Sartu eta nabiga ezazu!!!
- <http://www3.gipuzkoa.net/corporac/Juv/gazteria/index.asp>

ZER BERRI VIDEO CLUB ONGI ETORRIN



VHS - DVD

DIABLO


Filme honen protagonista Vin Diesel da, aduanetako agente baten lana betetzen du. Kasu honetan, bere funtzioa Mexiko eta Estatu Batuetako mugan dagoen droga trafikarekin amaitzea da. Bere helburua mafia oso hori kontrolatzen duen capo edo burua topatzea da. Bere emaitza hiltzen duten unetik gauzak erabot aildatuko dira. Mundu beltza eta ilun bat aurkituko da.



VHS - DVD

NORMAL

Bere erlazioa geratuta dagoela aurkituko duen bikote baten bizitza kontatzen da. Erabaki gogor batek erlazio honetan eragin handia izango du: gizonak sexuaz aldatu nahi duela esango da. Berri honek bikote katoliko honengan eragin handia izango du, ezkondu zirenetatik 25 urte ospatzeko prest diadate eta. Une gogorak biziko dituzte baina politik politik aurrera ateratzeko grina erakutsiko dute.



VHS - DVD

ENIGMA

Bigarren Mundu Gerran Naziek erabili zuten kodigo sekretu bat deszifratzen saiatuko diren unean kokatzen da filma. 1941ko udaberrian gaude, gerra puri-puriari dago, eta edozein unetan alde batetara edo bestera jausi daiteke. ENIGMA izeneko kodea urpekariaren kontakuntan jartzeko erabiltzen dute tropa alemanek, eta aliatuek horren aurka Bletcheley Park sortuko dute honen aurka.



VHS - DVD

EL BUEN LADRON

Nick Nolte da filmaren protagonista. Frantziako Korsika Urdinean bizi da eta bere antzina oso iluna da, azaro ugari beteta. Heroina eta jokararen munduan sartuta, lapur bikaina zen egun haiek gogoratzen da. Bere aurreko lagunekin bilduko da eta Kasino bateko aberastasunak lapurretan saiatuko da, besteen artean Picasso-ren koadro garrantzitsuenak gordetzen direnak.



VHS - DVD

LARA CROFT, TOMB RAIDER

Gure heroiak kasu honetan misio oso arriskutsu batean sartuko da. Nobel saria irabazi duen zientzialari bat legearen beste aldera igaro da, Pandorako kaxa mitikoa topatu nahia. Lara Croft-ek mundu erdian gurrutatu beharko du, bere aukariak baina lehen aipaturako kaxa hura aurkitzeko.



VHS - DVD

LA LIGA DE LOS HOM- BRES EXTRAORDINARIOS

Fantasia nagusi den mundu batetan garatzen da istorio hau. Mundu horretan, pertsonaia ilun batek teknologia aprobetxatuz mundu gerra berri bat sortu nahi da. Britainiar Gobernuak, nazioen arteko gerra berriz ere piztu daitekeela, gizon talde bat sortzen saiatuko da aukari honi aurre egiteko.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

- ✓ Argazkien errebelatzea: / Argazkilaritzako materiala
- Eskaintza 13x18
- Eskaintza 2x1 / Fotokopiak, fax bidali eta
- Errebelatu zure argazkiak CD jasotzea
- formatoan

- ✓ CASIO Erloju eta iratzargailuak
- ✓ CALIPSO erlojuak
- ✓ Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pultsea, piercing...
- ✓ Bitxiak: urrez txapatuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

ZER IKUSI OTSAILEAN



LANZAROTE

- Irteerak Bilbotik, ostegun eta igandeetan
 - Otsailaren 1etik 29era, 8 egun eta 7 gau
 - Puerto del Carmen
- Bitacora apartamentuak: 296 euro, alojamendua eta gosaria
 Beatriz hondartza 4*: 394 euro, pentsio ertainean
 - Costa Teguisse

- Siroco apartamentuak: 246 euro, alojamendu eta gosaria
 Beatriz hotela 4*, 394 euro, pentsio ertainean
 - Playa Blanca
 H-10 Rubicon hotela, 4*: 548 euro, pentsio ertainean
 Papagayo Arena hotela 4*, 631 euro, dena barne

TUNEZ



- Otsailaren 23an, 2x1
- Hegalaldi berezia
- Hondartzan bertan, Globalia Savanna 4*
- 247 euro, pentsio ertainean

CANCUN

- Irteera Madrildik
 - 9 egun eta 7 gau
 - Cancun
- Oasis hotela: 810 euro, dena barne
 Melia Turquesa hotela: 844 euro, dena barne

- Melia Cancun hotela: 997 euro, dena barne
 - Riviera Maya
 Gala Resort hotela: 978, dena barne
 Flamenco hotela: 1013 euro, dena barne
 Xpu-Ha Palace hotela: 1276 euro, dena barne



HALCON
 VIAJES
 BIDAIAK

Zuloaga Kalea, 2 • 20280 Hondarribia • Tel. 943 64 38 73 / Fax. 943 64 28 76

1961: HONDARRIBIAREN ERDIGUNEAREN IRUDI BAT

Benetan da aberatsa Hondarribiak daukan altxorra irudi eta postal zaharren inguruan.

Ez bakarrik argazki solteak begiratuta, baita berari buruz argitaratu diren liburuak aztertzen baditugu, asko direla ohartuko gara.

Kasu honetan "Hendaye, Irún, Fontarabie; villes de la frontière" liburua kontsultatu dugu. "Institut Français d'Architecture" erakundeak argitaratuta, hiru hirien hirigintzaren deskribapen bat egiten da. Sinadura garrantzitsuak agertzen dira liburuan, Maurice Culot, Gilles Martinet, Aitor Puche eta Javier Ponte adibidez. Bakoitzak bere hiriari buruz idazten du, hirigintza arloan izandako aldaketa nagusienak aipatzen direlarik.

Liburu mardul honen 318. orrialdean aurkitu dugu Hondarribiari buruzko irudi eder hau. 1961. urteko uztailaren ateratakoa da. Portuko sarreran egiten ari ziren lehen aldaketak ikus daitezke, Miramar egin berria, eta ezker aldean, goiko aldean zuhaitzen artean Glim Etxearen perfilezko irudi bat. Pena merezi du beharrezkoa den denbora ematea argazki hau aztertzen.





eukeni
optika

neretzat
zuretzat
guztiontzat

San Pedro, 57
20280 Hondarribia
943 643 805

R.P.S. 28/98 O.P.

EXPERT

GEURIA

MOBILIARIO DE COCINA
Tel. 943 64 07 14

ELECTRODOMÉSTICOS
Tel. 943 64 33 86


San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

NON DAGO PUTZU HAU?

2004ko lehen aldizkari honetan iritsi gara berriz ere gure irakurle-ek hainbeste maite duten atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen diren gutunen arabera, gero eta gehiago dira Lehiaketan parte hartzera ausartzen diren irakurle-ak.

Aurrera segi aurretik, azken alean planteatu genuen galderari buruz hitzegin behar dugu. Bertan, San Pedro kaleko 37. zenbakiko eraikinean dauden bi elkarteren izena galdetzen genuen. Orduz geroztik, 60 erantzun jaso ditugu, guztiak ongi daudelarik. Denek erantzun dute lehen solairuan Azeri dagoe-la eta hirugarrenean Emeki. Denen artean bi pertsonentzako afaria irabazi duena **Nerea Salaberria** izan da. Euskara Batzordera deitu besterik ez du, eta gero Beko-Errota jatetxetik pasa.

Bien bitartean, gaur aurkezten dizuegun galdera ere aski erraza



da. Hondarribiko eraikin garrantzitsu eta oso esanguratsu batean dagoen putzu baten irudia da. Gutun batean eraikin hau zein den idatzi behar duzue eta Udal Euskara Batzordera bidali otsailaren 20a aurretik. Zorionak garaileari eta zorte on beste guztiei.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

OTSAILAK 1 ETIK 29 ARTE



CAPRICORNIO: Zer moduz prestatuntza fisiko bat mantentzen hasten bazara? Kirola utzi zenuenetik okerrera zoaz, eta fisikoa gain, kirolak ahalmen psikologikoakdituela ez duzu ahaztu behar. Apurka bueltatu beharko zara aurreko bizitzara.



CANCER: Jarri al zara azken aldiotan ispilu aurrean? Ile asko galtzen ari zara, eta horrek badu erremedioa, denboraz ibili ezkerro behintzat. Hala ere lasai, burusoila izateak ere badauka eta bere xarma. Ez duzu orrazerik beharko.



AQUARIUS: Laister ditugu ihauteriak gainean eta oraindik ez dakizu zertaz jantzi. Aholku bat ematea nahi baduzu, jantzi zure nortasunarekin bat dihoan zerbaitetaz. Zure izakera aldatu nahi baduzu, oker egingo duzu. Pailazoarena ez legoke gaizki.



LEO: Nota txarrak atera dituzu azken hontan, eta hori burua behar ez den lekuan duzulako da. Utzi txoriak alde batera, oraindik oso gaztea zera eta eta hurrangoan nota hobekak ekarri, gurasoak haserretu eta berriz zigortu egingo zaituzte eta.



PISCIS: Ez gehiago arratsaldetan telebistan botatzen dituzten programa horiek ikusi. Bakoitzak bere bizitza kontatzen du eta zu erne dena ikusten. Edozer gauza egitea hobe da programa horiek ikustea baino.



VIRGO: Orain arte bezala jarraitu bizitza osasuntsu bat eramanez, ez bait dago hori baino gauza ederragorik. Karta jokoa eta patxarana alde batera utzi asteburutan, eta astean zehar eginikoari gogor jarraitu.



ARIES: Apur bat aktiboagoa izan beharko zenuke, eta ez beti etxean geratu. Noizean behin buelta bat ematera irten, lagun edota senargaiarekin, beste gauza batzuen artean horretarako bait daude. Etxeko lau paretak gainean eroriko zaizkizu.



LIBRA: Zure inguruan dauden guztietan aspertuta bazaude, argi dago zer egin behar duzun. Lagunez eta bizimoduz aldatu, beharbada horrela ondorenean hobe-kiago joango zaizu dena. Bitartean aguantatu!



TAURUS: Zure urtebetetzea oraindik oso urrun badago ere, laister opari bat jasoko duzu emozioz beteko zaituena. Ez galdetu nork egin dizun oparia, beranduago eza- gutuko bait duzu eta zure ametsak bete egingo dira.



SCORPIO: Hainbeste lan eginda, zure hurbilekoak alde batera uzten ari zara, eta hori ez da ona. Noizbait beharko dituzu eta orduan agian beranduegi izango da. Ez ahaztu beraiek dirala zure izana eta izena.



GEMINIS: Zer moduz zure bizitza pixka bat antolatzen hasten bazara? Honela ezin da inora joan, hamaiketari jaiki, egunkaria irakurritz gosaldu... Ez al duzu lanik bilatu behar? Hala ere hauek baino garai onagoak ere etorriko dira zuretzat.



SAGITARIO: Urte ederra da hau. Olinpikoa, Konpostelako Urte Santua... Ona izan daiteke zuretzat, hala ere bilatu egin beharko duzu suerte on hori.

jaiotzak

2an: Arene Zugasti Goikoetxea
Gurasoak: Mikel eta Alejandra
2an: Ane Gonzalez-Echavarri Arruabarrena
Gurasoak: Juan Carlos eta Irene
3an: Naiale Egiazabal Alza
Gurasoak: Iñaki eta Garbiñe
4an: Alize Irastorza Darceles
Gurasoak: Asier eta Josune
4an: Martin Jimenez Guerra
Gurasoak: Oscar eta M^a Carmen
7an: Iker Rivera Otero
Gurasoak: Iñaki eta M^a Eugenia
7an: Nicolas Isasi Larrinaga
Gurasoak: Jose Antonio eta Pilar

10ean: Ainhoa Goikoetxea Seisedos
Gurasoak: Juan Antonio eta Carmen
13an: Daniel Lorenzo Rodriguez
Gurasoak: Aitor eta Laura
15ean: Maria Lucambio Begino
Gurasoak: Pedro M^a eta Olga
16an: Amets Ortega Aparicio
Gurasoak: Gorka eta M^a Eloisa
18an: Uxue Lukin Elosua
Gurasoak: Karmelo eta Ainhoa
19an: Ander Altuna Sanchez
Gurasoak: Jon eta Monica
25ean: Aimar Gende Arruabarrena
Gurasoak: Zigor eta Mertxe
26an: Nahir Alkain Nieto

Gurasoak: Mikel eta Ana
28an: Nora Arieta-Araunabeña Bello
Gurasoak: Ibon eta Maite
28an: Ander Arieta-Araunabeña Bello
Gurasoak: Ibon eta Maite
28an: Araitx Auzmendi Gogenola
Gurasoak: Xabier eta Begoña
29an: Leire Olazabal Sorondo
Gurasoak: Joxe Mari eta Sonia
29an: Andoni Berges Martinez
Gurasoak: Ignacio eta Maria
31an: Joseba Kanpandegi Vicente
Gurasoak: Jose Maria eta Junkal

ezkontzak — heriotzak

6an: Miguel Peñalvo Carton, Andoaingoa eta Agustina Egaña Ezeiza, Hondarribikoa

6an: Carlos Mendizabal Rodriguez, Lezokoa eta Amaia Tovar Antona, Hondarribikoa

27an: Juan Bautista Alvarez Pueyo, Hondarribikoa eta Beatriz Alza Iturriza, Hondarribikoa

27an: Ezekiel Pelaez Picapedra, Donostikoa eta Leire Perez Aramburu, Hondarribikoa

6an: Vicente Bergareche Ruiz, 76 urtekoa. Higer Bidea

9an: Maxima Sagarazu Ugarte, 95 urtekoa. Bidasoa kalea

11an: Simona Iridoy Larruskain, 92 urtekoa. San Gabriel Egoitza

13an: Juan Jose Barandiaran Erauso, 64 urtekoa. Higer Bidea

16an: Ignacio Etxarri Guereño, 85 urtekoa. Bernat Etxepare kalea

16an: Jose Luis Iridoy Sagarazu, 70 urtekoa. Puntala auzoa

21ean: Jose Vazquez Espino, 64 urtekoa. Eguzki Lore

22an: Francisca Imaz Arruabarrena, 87 urtekoa. Minasoroeta kalea

28an: Ricardo Hernandez Gonzalez, 53 urtekoa. Amute auzoa

29an: M^a Josefa Arrieta Sarasola, 72 urtekoa. Amute auzoa

31ean: Josefa Virto Cucullo, 84 urtekoa. Santiago kalea

31ean: Clementina Aiestaran Irigoien, 95 urtekoa. Pasaia kalea

ENDANEIA

lore eta landare
mintegia



Arkoll auzoa, 7
Tel.: 943 64 17 10
20280 HONDARRIBIA

Joski

- LENTZERIA
- HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21
20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 64 17 65



Ai, ai ai... baina zein astoa den demontxo... hori kolpea eman didana adar horrekin ai, aii!



Ez zaitetz hainbeste kezatu ume... okerragoa izan da nirea...




...ni ez naiz makurtu!



Kirolean.



Enpresetan.



Jaietan.



Kulturan.



Osasunean.



Aisialdian.

**KUTXAREN
IRABAZIAK NONAHI
DIRA AGERI.**